



### **2026ko SANFERMINETAKO KARTEL LEHIAKETA**

Iruñeko Udalak 2026ko SANFERMINETAKO KARTEL LEHIAKETARAKO deia egin du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

#### **1.-XEDEA.-**

2026ko SANFERMINETAKO KARTEL LEHIAKETA: 2026ko sanferminak iragarriko dituen kartel ofiziala hautatzea da lehiaketa honen xedea.

#### **2.- SARI-MODALITATEAK.-**

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

5.000 euroko sari bakarra, eskudirutan, irabazle hautatutako kartelarendako.

500na euroko bederatzia accesit, herritarrek bozkatzeko hautatuak izan eta sarituak ez diren bederatzia proiektuendako.

#### **3.- DIRU-ZUZKIDURA.-**

Deialdi honi, gehienez ere, 9.500 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura:

50/33800/480000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

o 5.000 euroko sari bakarra irabazle hautatutako kartelarendako.

o 500na euroko bederatzia accesit, herritarrek bozkatzeko hautatuak izan eta sarituak ez diren bederatzia proiektuendako.

#### **4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-**

Lehiaketan nahi duen orok hartzen ahalko du parte.

Egile edo kolektibo bakoitzak kartel bakarra aurkezten ahalko du, betiere pertsona fisikoak badira.

Ezin izanen dute parte hartu lehiaketaren aurreko edizioetan finalista izateko hautatutako obrek.

Oinarriak ez betetzeagatik baztertu eta zehatu diren pertsonak ezin izanen dira lehiaketara aurkeztu, harik eta zehapen-aldia igaro arte.

Lehiaketa honen instrukzio-organoaren erantzukizuna izanen da parte-hartzaileei eragiten dieten zehapenak egiaztatzea eta organo emaileari baztertzeko proposamena igortzea, horietako batek ezin duela parte hartu egiaztatuz gero.



Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:  
 BAI  EZ

**5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, tokia eta epea.-**

LEHIAKETA HONETAN PARTE HARTZEKO ETA KARTELAK AURKEZTEKO IZEN-EMATEA MODU TELEMATIKOAN SOILIK EGINEN DA. PARTE-HARTZAILEEK KARTEL-PROPOSAMENA ETA PARTE HARTZEKO DATUAK AURKEZTU BEHARKO DITUZTE HORRETARAKO PRESTATUTAKO FORMULARIOA BETEZ.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

WEBGUNEA: [www.pamplonaescultura.es/eu](http://www.pamplonaescultura.es/eu)

Webgunearen hasierako orrian bertan, esteka bat gaituko da Sanferminetako Kartel Lehiaketa izenburuz. Haren bidez zuzenean sartzan ahalko da izena emateko formularioan eta, gainera, oinarriak kontsultatu.

Formularioa hiru hizkuntzatan betetzen ahalko da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Formularioan, parte-hartzaileek datu pertsonal guztiak bete beharko dituzte, eta dokumentu hauek erantsi:

A. KONTZEPTUA:

Kontzeptuaren garapen teorikoa eta kartelaren osagaiak, hala nola konposizioa, koloreak, tipografia, sinbologia... (PDF artxiboa, 1 MG gehienez - 1 orri bi aldeetatik).

B. DOSSIER ARTISTIKOA BALIOESPENA EGITEKO:

Gehienez 5 orri eta 1 MB izanen dituen PDF formatuko dossier bat aurkeztu beharko da, aldez aurretik egindako lan artistiko argitaratu gabeak edo argitaratuak biltzen dituen, bereizmen baxuko irudiekin (gubxienez 3 eta gehienez 6). OHARRA: Dokumentu horretan ezin da paratu egilearen identitatearen berri ematen duen informaziorik.

C. KARTELAREN IRUDIA:

Kartelaren irudia JPG formatuan aurkeztuko da (neurriak: 820 x 1171 pixel. Bereizmena: 72 pixel/hazbete. Pisua gehienez: 2 MB).

Proposamena jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan beharko da, eta teknika librekoa. Ez da ez osorik ez partzialki adimen artifizialaren bidez sortua izanen.

Irudiak elementu hauek izan beharko ditu: testuak eta Iruñeko armarrria. Elementu horiek obran duten kokapena librea izanen da.

TESTUAK:

Testua irakurgarria izanen da, eta beraz, erabilitako tamainak zein tipografiak ongi irakurtzea erraztu behar dute. Hona hemen sartu beharreko testuak:

- o San Fermín
- o 2026



- o Pamplona/Iruña
- o Del 6 al 14 de julio/Uztailaren 6tik 14ra

Bai "Pamplona/Iruña" bai eta "Del 6 al 14 de julio/Uztailaren 6tik 14ra" banatuta egoten ahal dira edo lerro ezberdinetan, baina tamaina berekoak izan beharko dute. Banatuta edo modu ez ortografikoan berezita aurkezten badira, ez da barra etzana zeinu ortografikoa jarri beharko.

Hitz edo hizkuntza desberdinetarako kolore desberdinak erabiltzen ahalko dira, baina, nolnahi ere, bien irakurketa antzekoa izatea bermatu beharko da.

#### IRUÑEKO ARMARRIA:

Kartelak hiriaren armarrria eduki behar du. Armarrria jartzen ahal da Iruñeko Udalak bere logotipo ofizialean erabiltzen duen bezala (koloretako aldaera edo kolore bakarrekoa), harekin batera doan legendarik gabe. Diseinu hori erabili nahi bada, honako esteka honetan deskargatzen ahal da:

[www.pamplonaescultura.es/eu/escudos-de-pamplona/](http://www.pamplonaescultura.es/eu/escudos-de-pamplona/)

Aitzitik, kartelaren egileak armarrriaren diseinua bere kartelaren diseinura egokitu nahi badu, libreki egiten ahalko du, betiere ezaguterraza eta identifikagarria bada eta elementu guztiak behar bezala irudikatuta badaude.

#### INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Formulariora [www.pamplonaescultura.es/eu](http://www.pamplonaescultura.es/eu) webgunearen bidez sartu behar da, Sanferminetako Kartel Lehiaketa izenburuko esteka klikatuta. Haren bidez zuzenean sartzten ahal da izena emateko formularioan eta oinarriak kontsultatu.

Formularioa betetzeko, gaitutako lauki guztiak bete behar dira agertzen diren ordenan, kontuan hartuta izartxo batez markatutako eremuak nahitaez bete behar direla.

Goiburuko menuan, formularioa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez betetzea hautatzen ahalko da.

Ondoren eremuak beteko dira, nahitaezkoak direnak (izartxo batez markatuta daudenak) kontuan hartuta:

#### 1. Datu pertsonalak:

Egilearen (pertsona bakarra edo kolektiboa) Izena / Sozietate-izena, Abizenak / Ordezkarria, NANA, AIZa, IFKa edo besterik, telefonoa eta helbide elektronikoa. Garrantzitsua da helbide elektronikoa baieztatzea, haren bidez amaituko baita izen-ematea, formularioa betetzean e-mailez bidaliko den esteka sakatuz.

#### 2. Jaioteguna eta jaioterria:

- Data, Herrialdea, Autonomia Erkidegoa, Probintzia eta Herria. (Espainia).
- Data, Herrialdea (Espainiakoa ez bada).

#### 3. Helbidea:

- Herrialdea, Autonomia Erkidegoa, Probintzia, Herria, Kalea, Ataria, Solairua (hautazkoa) eta Posta kodea.
- Herrialdea eta helbidea (Espainiakoa ez bada).



4. Kartelaren datuak:
  - a) Kartelaren goiburua (kartela identifikatzeko izena).
  - b) Kontzeptua (PDF artxiboa igo, 1 MB gehienez):

Kontzeptuaren garapen teorikoa eta kartelaren osagaiak, hala nola konposizioa, koloreak, tipografia, sinbologia... (1 orri bi aldeetatik).

- c) Dossier artistikoa (PDF artxiboa igo, 1 MB gehienez):

Aldez aurretik egindako lan artistiko argitaratu gabeen edo argitaratuen aurkezpena, gutxienez 3 irudi eta gehienez 6 aurkezten dituen (bereizmen baxuko 5 orri gehienez).

- d) Kartelaren irudia (JPG artxiboa igo, 2 MB gehienez):

o Kartelaren irudia JPG formatuan aurkeztuko da (neurriak: 820 x 1171 pixel. Bereizmena: 72 pixel/hazbete).

- o Kartelak izan beharko ditu oinarri hauetako 5. puntuan zehaztutako testuak eta Iruñeko armarrria.
- o Kontuan izan behar da 10 kartel finalistek, inprimatzen direnean, 1000 x 700 mm-ko formatua izanen dutela (bertikalean).

5. Sakatu beharko da lehiaketa honetara aurkeztutako kartelaren egilea dela adierazten duen eta, obra hori originala eta argitaragabea dela eta kartela egiteko ez dela adimen artifiziala erabili aitortzen duen laukitxoa.

Eremu guztiak bete ondoren, formularioa igortzeko, horretarako gaitutako botoia sakatu beharko da. Garrantzitsua da nabarmentzea izapide horrekin EZ dela izen-ematea amaitzen. Jakinaraziko zaizu MEZU ELEKTRONIKO BAT JASOKO DUZULA (datu pertsonalei buruzko 2. atalean emandako helbidean), eta horra bidaliko dizute formularioko datuen laburpena.

Mezu horretan ESTEKA bat egonen da. Hura sakatu beharko duzu BALIOZKOTU eta IZEN-EMATEA AMAITZEKO.

Hori eginda, bigarren eta azken mezu bat jasoko duzu, non BERRETSIKO BAITA zure parte-hartzea lehiaketan, kartelaren GOIBURUArekin (4. atalean emanda), IDENTIFIKAZIO AGIRIArekin eta lehiaketan erreferentziakoa izanen den PLIKA-ZENBAKIArekin batera. Mezu hori izanen da lehiaketan parte hartzeko egiaztagiria.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bideetako edozein erabiltzen ahalko da.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina hasiko da, eta 2026ko apirilaren 14an amaituko. Soilik online aurkezten ahalko da; beraz, puntu honek debekatzen du aurreko paragrafoan aipatutako Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen artikuluan aipatzen den beste edozein bideren bitartez aurkeztea.

Iruñeko Udalak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona



fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.

Lehiaketaren plataformara igotako irudiak udal-zerbitzarian egonen dira lehiaketak dirauen bitartean, harik eta lehiaketaren azken fasea amaitzen den arte, jendaurreko balizko erakusketa barne. Ondoren, sistematik ezabatuko dituzte, salbu eta 10 kartel finalistei dagozkienak, zeinak publikoki hedatuko baitira herritarrek bozka dezaten. Ondoren, Iruñeko Udalaren artxibo digitalean gordeko dira, lehiaketaren oinarrien 4. puntua beteko dela bermatzeko.

## 5.2. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA ETA AZKEN ARTXIBOAK ESKATZEA

Kartelak aurkezteko epea amaitu ondoren, oinarri hauen 6. puntuan zehaztutako epaimahaia bilduko da, herritarrek bozkatzeko fasera igaroko diren hamar irudiak hautatzeko. Horretarako, honako irizpide hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- Proiektuaren kalitate artistikoa: proiektuak sortzen duen interesa, eta ideia kontzeptualaren eta proposamenaren arteko koherentzia.
- Sanferminen irudiari buruzko sorkuntza artistikoari egiten dion ekarpena.
- Eskatutako xehetasunen koherentzia eta irakurgarritasuna.
- Dossier artistikoa zenbateraino den interesgarria eta koherentea, edo zenbaterainoko oihartzuna izaten ahal duen.
- Udalak sanferminetan erabili ohi dituen formatuetara (egitarau ofizialaren portada, eskuorri zabalgarriak, oholtzetako olanak...) eta hedapen digitalera edo miniatura eta abarretara hobekien egokitzen diren diseinuak. Bai eta beste marketin-elementu batzuetara hobekien egokitzen direnak ere.

Epaimahaiak 10 kartel finalista hautatuko ditu. Hautatutako kartel horien plika-zenbakiak Iruñeko Udalaren webguneetan ([www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) eta [www.pamplonaescultura.es/eu](http://www.pamplonaescultura.es/eu)) argitaratuko dira. Herritarrek bozkatzeko fasera igaroko diren hamar finalistak hautatu ondoren, Iruñeko Udalak egile horiei eskatuko die bakoitzak bere kartela bereizmen handiko artxiboan aurkezteko, 1000 x 700 mm-ko formatu bertikalean ongi erreproduzitu dela bermatuko duen kalitateaz. Iruñeko Udalak bere gain hartuko du kartel finalistaren ekoizpena, ikusgai jar daitezela. Horretarako, hautatutako egileei eskatuko zaien artxiboa hartuko du oinarri.

## 5.3. HERRITARREN BOZKETA

Lehiaketaren azken fasean, herritarrek hautatuko dute irabazlea, 10 finalista horien artean. Horretarako, kartelak digitalki ikusgai egonen dira adierazitako webguneetan, bai eta fisikoki ere, balioesteko.

Ondoren, herritarrek parte hartzeko prozesu bat hasiko da, gutxienez zazpi eguneko, 10 kartel finalistak hedatu eta ikusgai jartzeko, non herritarrek gogokoen duten kartelaren alde bozkatzen ahalko duten horretarako gaitutako bitartekoen bidez (digitalki eta aurrez aurre). Herritarrek parte hartzeko aldia eta bozketaren prozedura behar den unean eta moduan iragarriko dira. Azkenik, herritarren boto gehien jaso dituen kartela izanen da sariaren irabazlea eta 2026ko sanferminak iragarriko dituen.

**LEHIAKETAREN BEHIN BETIKO EBAZPENA EMAN ARTE EZIN IZANEN DA JAKITERA EMAN KARTELAREN EGILEA NOR DEN.**

Lehiaketan parte hartzea anonimoa da, eta hala izaten jarraitu behar du lehiaketaren fase guztietan. Ezin izanen da kartelen irudirik hedatu (ez hautatuenak, ez hautatu ez direnenak) eta parte-hartzaileek ezinen dute jakitera eman nor diren egileak, harik eta kartel irabazlearen aurkezpen ofiziala egiten den arte.

Anonimotasunaren betebeharrari buruzko oinarriak ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.



Arau-hauste larri horrek izanen duen zehapena da, aurtengo ediziotik automatikoki kanporatuta geratzeaz gainera, ezinen dela lehiaketara 3 urtez aurkeztu.

Adimen artifizialaren bitartez osorik edo partzialki sortutako obrak ezin dira saritu.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak jaso ez diren lanak suntsitzen ahalko ditu, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

## **6.- EPAIMAHAIA.-**

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria.
- Epaimahaikideak: Sei izanen dira: Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko arte plastikoetako teknikaria (edo, haren orde, Arlo bereko teknikari bat) eta diseinuaren, komunikazioaren eta arte plastiko eta ikusizko arteen arloetako bost profesional.
- Idazkaria: Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko langilea.

Instrukzio-organoak bere proposamena helaraziko dio organo eskudunari, hau da, Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariari, sariak ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera:  BAI  EZ

## **7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-**

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoetz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001 Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean kontsultatzen ahal dituzu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratzen ahalko dira, eta hainbat komunikabidek zabaltzen ahalko dituzte.

## **8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-**

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen alorreko idazkaritza teknikoak izanen da.



Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea:  BAI  EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Dirulaguntzen Datu-base Nazionala, Iruñeko Udalaren Egoitza Elektronikoa eta Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

### **9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-**

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak kartel irabazlea eskuratuko du, eta saritutako egileak (edo egileek) obra ustiatzeko eskubide guztiak emanen dizkio Iruñeko Udalari, berarendako bakarrik, mugarik gabeko epean eta mundu mailan, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen apirilaren 12ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat, honako xede hauetarako:

- 2026ko sanferminetako programa hedatzea Iruñeko Udalak erabakitako edozein formatu fisiko edo digitaletan.
- 2026ko sanferminen publizitatea egoki iritzitako edozein euskarri, komunikabide edo eremutan, bai eta kontraprestazio ekonomiko bat lortzen denean ere. Jaien publizitatea Iruñeko Udaleko komunikazio-zerbitzuen irizpideen arabera eginen da.
- Etorkizunean kartelen atzera begirako erakusketan, oroitzapenezko argitalpenetan eta antzekoetan hedatzeko.
- Lehen deskribatutako xedeekin zerikusirik ez duten erabilpenetarako, baldin eta Iruñeko Udalarendako onura ekonomikorik ez badute, betiere Udala antolatzaile, laguntzaile edo sustatzaile izanez gero.

Udalak egoki iritzitako eta kartelaren hautaketarekin lortu nahi dituen helburuetako bat edo batzuk betetzeko ezinbestekoa den edozein modalitatetan ustiatzen ahalko du obra. Ustiapen-modalitateen artean, kartela edozein euskarritan erreproduzitzen ahalko du, ukigarri eta ukiezinetan, eta egoki jotzen duen hedabide guztietan jendaurrean argitaratzen ahalko du, bai eta digitaletan ere.

Egileari dagokio Udalaren titulartasunpekoak ez diren xedeetarako hirugarrenei baimena ematea 2026an erreprodukzioa eta banaketa egiteko, bai eta helburu komertzialekin ere, baldin eta baimen horiek ez badiete kalte zuzena eragiten Udalaren helburuei.

Egileak harremanak baditu jabetza intelektualaren eskubideak kolektiboki kudeatzen dituen erakunderen batekin, hari jakinarazi beharko dizkio oinarri hauetan ezarritakoak, Iruñeko Udalari dagozkion kartelaren ustiapenerako eskubideak direla eta, apartatu honetan azaldutakoaren arabera.

Kartel irabazlearen egileak (edo egileek) Iruñeko Udalak eskatzen dizkion beste formatu batzuetara egokitu beharko du kartela, hainbat euskarritan hedatu ahal izateko. Gehienez ere zortzi egokitzapen egiten ahalko dira. Sariaren diru-zuzkidurak aipatutako lanak egitea barne hartzen du.

Diseinu horiek kartel irabazlea aurkezten denetik 2026ko ekainaren 15era bitartean eskatu, egin eta entregatu beharko dira.



Iruñeko Udalak lehiaketan parte hartu duten obrekin jendaurreko erakusketak antolatzen ahalko ditu, kartel guztiekin edo xede horretarako hautatutako karteekin, zehazteke dauden era, toki eta datetan.

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek kartela lehiaketara aurkezte hutsagatik baimena ematen diote Iruñeko Udalarari aurkeztutako obra jendaurrean hedatzeko, oinarri hauetan zehazten diren edozein jarduketan esparruan.

Lehiaketa garatzeko parte-hartzaileekin egin beharreko kudeaketa guztiak instrukzio-organoak egingen ditu. Kudeaketa horietan anonimotasunari eutsiko zaio, eta jasotako jarraibide guztiak bete beharko dira.

### **10.- ERREKURTSOAK.-**

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar beren lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onestea eta horiei men egitea.

Lehiaketa hau garatzean eta oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen ahal diren gatazkak organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.